

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arama



Aurkibidea

Udalerria: Arama

Sarrera



Goierri eskualdean kokatua, headuraz Gipuzkoako udalerririk txikiena da Arama. Bere lurak Arriguntzagaña mendi-hegaletan zehar zabaltzen da. Ondoko herri hauek ditu mugakide: iparraldean, Itsasondo; ekialdean, Altzaga; hegoaldean, Zaldibia; eta, mendebaldean, Ordizia. Ekonomi jarduerak tamaina txikiko landako udalerrri baten ezaugarriak betetzen ditu: okupatuta dagoen populazioa industria, zerbitzuak eta nekazaritzan banatuta dago, ordena horri jarraiki. 1858. urtean paper-fabrika bat ezarri bazen ere, industri establezimendu hau itxi egin zen, eta duela gutxi arte ez da horrelako besterik egon. Hori hala izanik ere, populazio aktiboaren gehiengoak sektore honetan egiten du lan, horretarako inguruko fabrika-guneetara bertaratuz (Ordizia eta Beasain batez ere). Arama bi gune nagusitan banatzen da: Alde batetik herrigunea dugu, udaletxea eta kale nagusia dituen, eta bestetik baserriek osatutako gunea dago. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 201
- **Euskaldunak:** %90,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **35**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **4**

- Bideoak: **26**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista

Hizlariak

Mikel Irizar Arizmendi (1934)

Mikel Aramako Ibares erroten jaio zen 1934ean. Aramako eskolan ibili zen Ordizira joan zen arte. Eskola eta udaletxea eraikin berean zeuden, hilerriaren gainean, eta neska-mutilak elkarrekin ikasten zuten. 15 urte egin zituen arte ikasi zuen. Araman tabernarik ez zegoela eta sagardotegira joaten ziren meriendatzera edo sagardoa eratera. Emaztea Ordizikoa du eta errotara ezkondu ziren. Ofizioz errotaria eta okina izan da. Etxeko erroten irina eta pentsua egiten zuten, eta elektrizitatea ere sortzen zuten.

Eugenio Iza Mujika (1935)



Eugenio Aramako Aiestazuri baserrian jaio zen; gurasoak legorretarrak zituen. Aramako eskolan ibili zen umetan; eta, Beasaingo fraideetan, 15 urte bete zituen arte. Eskola bukatu eta aroztegi batean ofizioa ikasten aritu ondoren, Indarren hasi zen lanean. Bertan ibili zen erretiroa hartu zuen arte. Elkarriketa bere emaztearekin batera egin zitzaion, Martina Urretabizkaia, hura ere aramarra. Aramako hainbat kontu aipatu zizkiguten.

Martin Urretabizkaia

Aramako baserritarra da eta 1990an baserriak bizi duen egoera aztertzen du: lanak, diru-laguntzak, produkzioaren egoera, baserriaren etorkizun eskasa...

Martina Urretabizkaia Etxeberria (1936)



Martina Aramako Agerre baserrian jaio zen; aita zuen bertakoa, eta ama zaldibiarra. Eskolan Araman ibili zen. Elkarriketa bere senarrarekin batera egin zitzaion, Eugenio Iza. Elkarriketan, Aramako hainbat istorio kontatu zizkiguten eta umorea izan zen nagusi.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Denak batera eskolan

- **Hizlaria(k):** Iza Mujika, Eugenio; Urretabizkaia Etxeberria, Martina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ARM-002/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Neska eta mutil, denak batera egoten ziren eskolan. Hamabi urte arte, gustua hartzen hasi zirenean utzi egin behar. Asko aldatu da Arama ordutik hona.

Transkripzioa

-Ta umetan nola bizi ziñaten Araman?

M-Umetan pos felizes gauza gutxikin konformatzen giñen ta.

E-Hor do gure alaba txikitzekoa.

M-Alaba bai baiño gu.

E-Eta semea hor beste alden. Seme alabak dauzku. Han illobak.

M-Ba umetan osea eskola, eskola ikasi behar genun garaien etxea lanea. Ni ibili nitzen Araman eskolan, nazionaleta, urdun zan, bueno! Zea klase guztitakok eoten giñen zaharragok gaztegek denetati.

E-Daneti, dana nahasi.

M-Eta...

-Zenbat urtetik zenbat urtea jun ziñen zu?

M-Ni hamabi arte, urduntxe gustoa hartu nionen ikasteko gogoi utzi in behar.

E-Ikasi behar gendunen fuera lanea.

M-Eta e, baiño bialdu niñuen, Ordizia etorri nitzen ni, beeatzi urtekin mojata, ta hor bazkaltzea ta erdearea ba hobetogo itteati, eta hamabi urte arte hor.

-Eta Araman esan zenu dana, edade guztitakok eta...

M-Edade guztitakok.

E-Danak nahasin.

M-Edade guztitakok, maixue juten zan ta edade guztitako...

E-Ni're bai igual.

M-Hau'e bai ta esango nuke zaharragok, gaztegek, dena.

-Eta neskak mutillakin?

M-Bai.

E-Hoi da, hoi zan Arama.

M-Garai baten.

E-Gure eskolako Arama hoi zan.

-Hoixe besteik ez e?

M-Ez.

E-Hoixe bakarrik.

M-Hoixe

E-Hor eliza ta etxe horren tarten zan eskolea.

M-Bai.

E-Hoixe da Arama.

-Beittu e!

E-Billatu uain uain Aramati horrea ze aldea daon.
-Bai.
M-Uain jutun bazea Arama ikustea ze kanbioa.
E-Hoi uain dala hirurogei urteti gora.

2. Familia eta harremanak

2.1. Arama, Gipuzkoako herririk txikiena

- **Hizlaria(k)**: Iza Mujika, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: ARM-002/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:10:50. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Garai batean Arama Gipuzkoako herririk txikiena zen. 100 bat biztanle zituen. Orain 200dik gora ditu. Pentsa, odolkiak banatzen zirenean, ia etxe guztietara banatzen zen.

Transkripzioa

-Ta baserri asko zeon Araman?Danak ezautzen ziñaten?

M-Bai.

E-Bai.

M-Asko e, Arama txikie, herri txikie...

E-Arama Gipuzkoan izan dan herri txikiña izan zan garai baten.

M-Bai.

E-Gipuzkoako herri txikiña, oain ez da, uain Oreja daola ustet txikiña, ta uain Aramak dauzke, berrehun ta, eztakit hamazapi-hogei habitante o hola, dauzke ta pf, lehen garai beten zan ehun, ehune inguru eo ehunda...

M-Urdun pentsa zazu txerrie iten zan baserrin, bi txerri eo hola izaten, eta olkik, eta olkik e partittu itten zien etxe guzita, baiño gero beste batzekok'e hiltze zuenen...

E-Olkik ordaiñetan.

M-Olkik ordaiñetan esaera dan bezela ematen zien.

-Ya, ya, eta etxe daneta ematen zenduen?

M-Den deneta ez, bazan han'e prefere, zea bazan, amistade izaten zan.

E-Izaten zan hola relazio gehitxona o...

3. Baserria

3.1. Trena gelditu Ibaresko errotan

- **Hizlaria(k)**: Iza Mujika, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref**: ARM-002/011
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:18:45. **Bukatu**: 00:20:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Estraperlo denboran trena geratu egiten omen zen Ibaresko errota parean. Baserritarrek ez zuten goserik pasatu baina

kaleko askok ba. Eugeniok erdi brometan esaten zuen berak baserriko andrea hartu zuela, bada ezpada ere.

Transkripzioa

-Estraperlua ta atzian utzi deula ta kontu gehio bakizkitzue hola estaperluanak [...] laguna zan ordun?
M-Estraperloa buf.
E-Bai, klaro horretarik'e...
M-Eta sekretarioak garai hartan!
E-Bazeuken han [...] bat'e bazeuken ta...
M- "Y el secretario!"
E- Horr'e dana prezintauta, gaiña generua euki ta ezin zendun!
M-Ezin zenun!
E-Artoa bazeneuken o ba ezin zendun, galazita zeon dana ta, prenda. Baiño horrek bazeuzke amistadek eta...
M-Baietz ba!
E-Klaro guardia zibiliek eta ibiltzen utzi.
M-Ta gauen atzen prezitua jarri, guardia zibillak jakingo zuen atzea preziontoa jarri ta yasta.
-Eta trena geatu iten zala esan dezue?
M-Trena.
E-Trenan bolada izan zan hor geatzen zan halare.
-Ta nun errotan ondon?
M-Bai, karrilla ondon dao ta.
E-Bai, karrila ondo ondon baitauke, kontra kontra.
M-Ta eamate zittuenak, zakuk.
-Aiba!
E-Kontra kontra.
M-Estraperloa, beno hola erosten zittun guradia zibiliek eta beste jende zea jauntxok
E-Eta ordun ere Naparroti ta patatakin ta gari, zea bueltan, hor guarda zibiliek'e, hemen'e, Lizarrustiko alde hoitan ta guardia zibiliek arrapauta bueno komerik ibiltzen zien hor, bizikletan [...] alto eman ta...
-Bai e!
E-Klaro hemen gosea zeon ta, jendea nunbaitteti, eta baserrin ta bueno, baserritan ta etxen itten zan patata itten zan, baserritan ta ez zeon, baiño kalen, kale-kalen, ez diruik, ez janik, mixerie!
M-Bai, nik ez nun pasa mixerik, guk ez genun pasa.
E-Karo, baserrin!
M-Behintzat janarie bagendeuken.
E-Nik, nik kale, nik baserrie hor baiño ya gu kaleko zeak giñen, gure attek'e fabrikan [...]...
M-Askotan diruik ez zan eongo baiño janarie bai.
E-Hok'e ze, zea gutxigo, horreati esaten nun ba nik...
-Janaria zeon bitarten e!
E-Esaten nun nik, esan nionean bati, esan nionen "motel nik bazpare baserriko andrea hartu diat, gure gazte denboran'e gose asko pasau nian ta gosea etortze balinbazat baserrin patata eo izangoek"

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Baserriko lanen banaketa (ARM-001/001)

Baserrian, garai batean, ikuiluko lana gizonarena zen eta emakumearena, berriz, etxekoa. Gaur egungo baserriko lanen banaketaz hitz egiten du.

2. Baserritik bizimodua nola atera (ARM-001/002)

Baserritik bizitzeko 3.000 metro inguruko berotegia behar da bere ustez. Ganadutik bizitzeko berriz 30 bat behi euren txahalekin.

3. Baserrian aurrerakuntzak (ARM-001/003)

Baserritarrarentzako gaur egun aurrerakuntza gehiago daude. Eusko Jaurlaritzak % 45eko diru-laguntza ematen die berotegia jartzeagatik.

4. Emakume baserritar gutxi (ARM-001/005)

Azoken inguruan aldaketa handiak ikusten ditu, gaur egun jendeak merkatal zentru handietan egiten baititu erosketak erosotasuna dela eta. Baserrikoa lan lotua da, ez lantegikoa bezalakoa; baserrian egun guztian jardun behar izaten da lanean. Emakume gutxi dago gaur egun baserrian lanean aritzen dena. Dirua eta inizatiba eramaten duena, aldiz, gero eta gehiago. Garai batean gizona zen jaun eta jabe.

5. Baserriko bizimodua lehen eta orain (ARM-001/006)

Baserriko lehen eta oraingo bizimoduaren inguruan hitz egiten du. Garai batean baserrian autokontsumo gehiago egoten zen; gaur egun ez dago horrelakorik. Baserrian badira kanpotik sartu diren produktuak, kiwia, adibidez.

6. Pinuak naturarentzat kaltegarri (ARM-001/008)

Martin pinuen aurka dago. Baserritik bizi direnei etxetik gertu landatzen dizkie pinuak eta kalterako dela iruditzen zaio, pinuak kaltea dakarkio hemengo lurrari eta kutsadurari ez dio batere laguntzen.

7. Kaletarren naturarekiko ikuspegia (ARM-001/009)

Mendira joaten denean lasaitasun bila joaten da; kaletarrak, aldiz, irratia hartuta joan ohi dira, natura beste era batera ikusten dute. Baserriko umeak kalera jaistean pairatzen dituen barreak aipatzen ditu. Baserrian bizi den haurrak naturaren inguruko jakintza ugari izaten du.

8. Kaletarren eta baserritarren euskara (ARM-001/011)

Kalean eta baserrian erabiltzen diren hizkeren arteko ezberdintasunak aipatzen ditu. Kaletarrek erdal hitzak erabiltzeko duten ohitura etxean hurrekin nabaritzen du.

9. Berorrika eta hika galzorian (ARM-001/012)

Gramatikari eta idazteari begiratuta euskara batua beharrezkoa dela uste du, baina hizketarako nork bere euskalkia erabiltzea egokiagoa iruditzen zaio. Hika gaur egun herri gutxitan hitz egiten dala aipatzen du. Berorika hitz egiten zen garai batean; gaur, berriz, galduta dago. Hikaz hitz egiteak errespetu falta adierazten du askorentzat.

10. Maria Martina eta Martin Mari (ARM-002/002)

Aitona Martin zen, eta berari Maria Martina jarri zioten eta anaiari Martin Mari.

11. Trenbideko lanean irabazitako diruarekin baserria erosi (ARM-002/003)

Bost anai-arreba ziren. Agerre baserrian jaio zen Martina, Araman. Ataundik etorritakoak aurretikoak, trenbidea egiten irabazitako diruekin erosi omen zuten baserria.

12. Aitona, Aramako alkate (ARM-002/008)

Bide-konpontzeak-eta auzolanean egiten ziren. Haserreak erraz sortzen ziren edozein lur-pusketagatik. Martinaren aitona alkatea izan zen luzaroan, eta ez zuen kargua utzi nahi. Errotariaren laguna zen. Errotariaren kontuak.

13. Guardia zibilak etxez etxe sinadura eta txerriki bila (ARM-002/009)

Guardia zibilak etxez etxe ibiltzen ziren sinadura bila, eta bide batez eskegita zeuden txorixoak eskatzen zituzten. Baina amonak bazetozela sumatzean ezkutatu egiten zituen.

14. Morroi piperzalea (ARM-002/013)

Morroi "historikoa" izan zuten. Piperra gustatzen zitzaion asko; behin ipini zioten janaria ezin pikanteagoa, baina ez zion kalterik egin. Arrosarioa egunero erreztatzen zen baserrian baina morroiari ez zitzaion gustatzen eta ukuilura ihes egiten zuen.

15. Hanka bereko zapata pareak erosi morroiak (ARM-002/014)

Uholdeak izan ziren urtean, 1953an, Tolosako feriatik zapata pareak ekarri zuen morroiak, baina biak hanka batekoak. Etxean denak prest haren kontura barre egiteko. Etxekoandreak ordaintzen zion soldata, kartilla ere jarri zion, baina dena gastatzen zuen aukera zuenean.

16. Baserrian pozik eta lasai bizi ziren orduan (ARM-002/016)

Oso pozik bizi ziren baserrian. Oraingo gazteak presaka bizi dira.

17. Babarrun-eltzea lurrera bota zutenekoa (ARM-002/018)

Errekan igeri, habiak bilatu, tiragomarekin ibili eta horrela dibertitzen zen txikitan Eugenio. Beheko sua zaintzen geratu ziren Martina-eta behin, eta baba-eltzea bota zuten. Barrez kontatzen du.

18. Garaiz itzuli behar erromeriatik (ARM-002/020)

Erromeria asko zen Eugenioren gazte denboran. Bazkal ondoren irteten ziren jaiegunetan. Martina-eta, berriz, ez ziren erromerietara joaten, Ordizia aldera baizik. Plazan musika. Martinak haserre aurkitzen zuen ama berandu helduz gero. Paga ematen zion, baina dena ez gastatzeko esanda.

19. Gizarte mailari asko erreparatzen zitzaion (ARM-002/021)

Ondo pentsatuta hasi behar zen mutilarekin, nobioak utzitakoa markatuta geratzen zelako. Askok begiratzen zitzaion familia onekoa zen. Martina, esaterako, Eugenio baino maila altuagokoa omen zen.

20. Nazionalistak eta karlistak (ARM-002/022)

Politikak garrantzi handia zuen: nazionalisten eta karlisten artean, esaterako, gorroto handiak sortzen ziren. Gerra ondoren, gauez eraman eta hildakoak hainbat izan ziren Ordizian.

21. Nafar erreketen oroitzapen txarra (ARM-002/023)

Nafar erreketek Goierrin sartu zirenean sarraski handia egin zuten, lapurretak eta abar. Jendea baserrietan eta ezkutatu zen, baina hala ere atxilotu eta desagerrarazitakoak izan ziren.

22. Gerra Zibila, gorrotoaren lurraldea (ARM-002/024)

Urbanen "Pilatosen Balkoia" izeneko amildegitik behera botatakoak izan ziren gerran. Gerra Zibila azkena da. Gorrotoak luzaro irauten du.

23. Araman soldaduen kuartela (ARM-002/026)

Gerra ondoren (1946-47 aldera) Araman kuartela egon zen. Apaiza, Inozenzio Munita, nazionalista zen eta haiei begiratu ere ez egiteko esaten zieten.

24. Apaiz jatorrak Araman (ARM-002/027)

Jatorra omen zen apaiza, baina ba omen ziren "soltera" batzuk kexarekin joaten zitzaizkionak edozer gauzarengatik. Ulazia abizenekoa eta Joxe Mari Aranalde bertsozalea ere ziren, beste batzuen artean. Jaiero meza nagusitara. Akolito ere ibili zen. Zortzi egun baino lehen bataiatzen zen umea. Gero "elizan sartzea" egiten zen, eta apaizari oiloa eraman behar zitzaion. Baina Aramako apaizek ez zuten onartzen.

25. Beldurrezko erlijioa (ARM-002/028)

Aste Santuan builaka jarduten zuten apaizek pulpitutik. Beldurrezko erlijioa zen hura. Aste Santuan eta ostiraletan haragia jan zitekeen bulda ordainduz gero.

26. Egoskaria jaten zen gehienbat orduan (ARM-002/029)

Etxean sortzen zena jaten zen gehienbat orduan. "Egoskaria" ia dena, babarrunak, patatak gaztainak... Garbantzak jaietan. Bi txerri hiltzen ziren askotan. Gazikutxan gordetzen ziren puskak, karetan kontserbatzen ziren arrautzak.

27. Simaurra eta karea, lurraren ongarri (ARM-002/030)

Lehenago karea botatzen zen zomorroak garbitzeko. Simaurra, garoz eta orbelez egindakoa zenez, oraingoa baino hobea zen. Soroko fruituak izendatzen ditu.

28. Bababarruna biltzera joandako emakumeen tranpak (ARM-002/031)

Garai hartan kanpoko emakumeak ibiltzen ziren babarrunak biltzen arto artean. Behin Martinaren aitak tranpak egiten harrapatu zituen bi emakume.

29. Baserriko lan-tresnak (ARM-002/032)

Laian nola egiten zen. Bere denboran ia ez zen egiten baina laiak ikusten ziren alde guztietan. Erreminta zaharren izenak: goldea, karramarroa, "Arrea" (area), alperra, zokor-mazoa eta abar, eta zertarako diren.

30. Harri-erauntsi beldurgarria (ARM-002/034)

1990an harri-erauntsi handia izan zen, dena txikitu zuen. Eugeniok min handia izan zuen buruan harri ale batek jota. Teilatuak eta negutegiak ere apurtu zituen. Zelaian harrapatu zituen eta umea belarrez estali behar izan zuten. Beasain eta Alegi bitartean izan omen zen handiena. Xehetasunak.

31. Nobio garaia: bost urte alperrik galduta (ARM-002/037)

Nobio garaia: bost urte alperrik galduta, dio Martinak. Orduan dena zen bekatu, musu ematea ere bai. Ordizian zinera joan, plazan dantzaz egin, kafea hartu eta iluntzean etxera. Eugenio Martinaren etxera egunero joaten zen lanera, amaginarrebak ikaragarri maite zuen. Amaginarreba neskame egondakoa zen gaztetan.

32. Agurainen mantentze aldera, erdara ikasten (ARM-002/038)

Eugenio hamar urterekin morroi egon zen Agurainen, erdaraz ikastearen aitzakiarekin. Etxean anai-arreba asko ziren eta tripa bat gutxiago izatea omen zen benetako arrazoia.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com